

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Ostirala, 2013ko martxoaren 22a. IX. urtea. 2.566. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Tolosaldeko Lehiakortasun eta Berrikuntza Zentroa inauguratu dute

Eusko Jaurlaritzako, Foru Aldundiko, Tolosaldea Garatzeneko, eta udaletako ordezkariekin batera, gizarte eragile eta enpresetako ordezkariak egon dira

Lehiakortasun eta berrikuntza zentroak elkarlanerako, komunikaziorako eta topagune izateko beharrezko den azpiegitura eskainiko duela azaldu dute Lehiberri 4-5



Jon Ander Torrea, Estibaliz Hernaez, Martin Garitano eta Ibai Iriarte Lehiberri Zentroaren maketaren aurrean, atzo, Apattaerreaka industrialdeko eraikin berrian. A. MAZ

### **PSCk bertan behera utzi du Villabonan atez atekoaz eman behar zuten hitzaldia**

EH Bilduk salatu duenez, PSE-EEren presioa jaso du PSCk, eta «interes ekonomiko eta alderdikoak lehenestea» egotzi dio  7

### **74 dendek beraien produktuak kalera aterako dituzte, Tolosan**

IV. Braderie azoka izango da Tolosa&Co merkatarien elkarteak antolatuta, bihar, 10:00etatik 20:00etara; produktuak merkeago erosteko aukera izango da  3

### **II. Tolosako Trialsin proba jokatu da Usabalgo Bike Park berrian**

Gipuzkoako Bike Trial ligako azken saioa izango da, igandean, 10:30etik aurrera; mundu mailako pilotuen parte hartzea izango da  2

### **Uraren Nazioarteko Eguna dela eta, jarduerak izango dira gaur**

Tolosako Udalak herritarrak sentsibilizatu nahi ditu, eta egun osoan zehar Trianguloa plazan, informazio puntu bat jarriko du  2



Irene Caminos eta Oier Lakuntzak denboraldi bikaina borobiltzeko aukera izango dute, etzi. ITZEA URKIZU

## Mundu mailako pilotoak ariko dira II. Trialsinean, Usabalgo Bike Park berrian

Tolosan Gipuzkoako bike trial ligako azken saioa jokatuko dute igandean, 10:30etik 13:30era bitarte

Itzea Urkizu Tolosa

Bigarren aldiz ospatuko dute, etzi, Tolosako Trialsin txapelketa, eta mundu mailako pilotuen parte hartzeaz gozatu ahal izango dute bertaratuak. Besteak beste, Benito Ros, Rafa Ribau, Jon Aretio, Abel Mustienes, Nacho Heredia eta Iker Rodriguez izango dira Usabalgo Bike Park berrian.

Tolosako Bike Trial taldeko arduradun Unai Iraolak nabarmendu duenez, «ilusio handiz aritu gara txapelketa honen antolaketan», eta Tolosako Udalararen laguntza «ezinbestekoa» izan dela

dio. Izan ere, aurrerantzean, Bike Park-a izango da Usabal kiroldegiaren atzealdean; harriekin eta egurrekin gune artifizial bat sortu dute, eta aldamenen, malda aprobetxatuz, gune natural bat ere izango da. «Aurrerantzean, herritarren erabilera librerako, eta Trialsin taldekoek ikastaroak eta antzekoak antolatu ahal izateko hor egongo da gunea», nabarmendu du Pello Etxabe kirol zinegotziak.

Aipatzekoa da, Gipuzkoako federazioak 6 bizikleta utziko dituela igandean, eta edonork parte hartu ahal izango du, 10 euroren truke bizikleta alokatuz: «Iaz arrakasta handia izan zuen, eta aurten ere gauza bera espero dugu».

**Gipuzkoako txapela eskuan**  
Gipuzkoako Trialsin Txapelketa azken saioa izango da igande-

an, 10:30etik 13:30era bitarte, Tolosan jokatuko dutena. Usabalgo Bike Parkean jokatuko denaren aurretik, ordea, Hernanin, Pasai Donibanen, Oñatin eta Urretxun jokatuko dituzte saioak, urte hasieratik hona.

Alebin, kadete, junior, senior eta alebin mailtako pilotoak lehiatuko dira, eta iazko 58 parte hartzaileak gaituzte espero dute Tolosa Bike Trial taldeko antolatzaileek.

Irene Caminos tolosarrak, ordea, eskuratu du jada Gipuzkoako garaipena, eta igandeko proban ez du ezer jokoan izango. Tolosako bike trial taldea 2011n sortu zenez geroztik, urte eta erdi inguru darama bizikleta gainean tolosarrak, eta aurten emakumezkoen txapelketarik osatu ez denez, gizezkoekin batera arituko da. Horrela, bera kadetea izanda ere, kadete, junior eta senior mailtako Gipuzkoako txapelduz izango da Irene Caminos.

Gisa berean, Tolosako Trialsin taldeko Oier Lakuntzak ere denboraldi bikaina borobilduko du etzi: «Bigarren postuan dago, eta horrela amaitzea espero dugu», dio Unai Iraolak.

## «Uraren kultura berri bat» bultzatu nahi du Tolosako Udalak

Gaur Uraren Nazioarteko Eguna dela eta, herritarrak sentsibilizatzeko jarduerak izango dira

I. Urkizu

Tolosako Ingurumen Zentroa eta Tolosako Udala elkarlanean aritu dira, Uraren Nazioarteko Eguna dela eta, gaur Tolosan izango diren jarduerak antolatzen. Besteak beste, «uraren kultura berri bat» sortzea da udalaren erronkarik handiena.

Urteroko moduan, uraren inguruko kontsumoaz eta honen zaintzaz herritarrak sentsibilizatzera begirakoak izango dira egitasmoak. Horregatik, tolosar guztiatzat informazio puntu bat izango da, egun osoan zehar, Trianguloa plazan; dokumentazioa eskuragarri izango da bertan.

Bestetik, zurrusta-haustekoak

edo perlizadoreak banatuko dituzte herritarren artean; etxeko iturrietan jartzeko tresna txikiak dira, eta ur kontsumoaren %50a aurrezteko ahalbidetzen dute.

Azkenik, lehiaketa bat ere antolatuko dute, Uraren Nazioarteko Eguna medio; *Badakizu zein urtetan izan ziren azken uholde handiak Tolosan?* galdera erantzun beharko da, eta irabazleei sariak banatuko dizkiete.

**Uraren hezkuntza**

Uraren Nazioarteko Egunaren aurretik ere, Tolosako ikastetxeetan gaia jorratu dute neska-mutuek. Izan ere, lehen hezkuntzako 3. zikloan eta bigarren zikloko lehen mailan, ibaiaren inguruko unitate didaktikoa izan dute ikasgai.

Besteak beste, ibaiaren paisajea, historia, parametro fisiko eta kimikoak, fauna eta landaredia ezagutu ahal izan dituzte, bai gelan, eta baita gelatik kanpo ere, burutu dituzten ibilbide gidatuetan.

## → Laburrak

### Skate festa izango da bihar, Usabalen

**KIROLA** › Tolosako Skate parkaren 2. urteurrena ospatzeko, TST elkarteak skate festa antolatu du, Usabalen. 11:00etan hasita, barbakoa bazkaria, skate jolasak, musika egun osoan zehar eta orroigarriak izango dira.

### Bizikletak berreskuratzeko tailerra BOX.An

**GIZARTEA** › Astelehenean, 16:00etatik 20:00etara, bizikletak berreskuratzeko tailerra eskainiko du Jon Ander Esnaolak, BOX.An, dohainik. Izena emateko: [gu@boxagara.com](mailto:gu@boxagara.com).

### Auzo konposta ikastaroa, bihar, kultur etxean

**INGURUMENA** › Tolosan auzo konposta egiteko ikastaroaren bigarren saioa, bihar izango da, 10:00etatik aurrera, kultur etxeko areto nagusian, Tolosa Zero Zaborren eskutik. Alliri, Araba etorbidea, Zabalzarreta, Lore arte eta Iazkun auzoko zenbait bizilagunek parte hartuko dute, jarri berri dizkieten konposta guneak erabiltzen ikasteko.

### Musika bandaren Pazko kontzertua, bihar

**KULTURA** › Tolosako Musika Bandak Pazko kontzertua eskainiko du, bihar, 19:00etan, Berdura Plazan. Enrike Arosteigik zuzenduriko emanaldian, hiru pieza estreinakoz eskainiko dituzte bandako musikariek, oholtzatza gainean.

### ↓ Iragarki laburrak

LANA

**Etxeko lanak egin edo haurrak zaintzeko.** Emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943 696882 / 606 521992

**Ileapaindegia.** Tolosako ileapaindegia batean lan egiteko, esperientziadun bi pertsona behar dira; bat lanaldi osorako, eta bestea erdirako. Deitu 625 70 50 59ra.

[www.inmosalbide.com](http://www.inmosalbide.com)



**Aia.** Baserría berri berria. 125m<sup>2</sup>-ko bi solairu ditu. 25 m<sup>2</sup>-ko terraza. Terrenoa, 110.000m<sup>2</sup>. 50.000.000 pezeta.

**Aizarnazabal.** 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 24.500.000 pezeta.

**Bergara.** Askarruntz auzoa. Guztiz berriua: bi logela, diseinuzko sukaldia, berokuntza sistema gasarekin. 150.000euro!

**Donostia.** Amara-Amezketakalea 3 logela, 2 bainugela eta terraza. Igogailua eta gasa. Zazpigarren solairua. Izkina. Ezin hobea. 59.898.960 pezeta.

**Iraeta.** Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. Prezio berria: 35.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Azken Portu. 92m<sup>2</sup> ditu. 4 logela, terraza, trastelekua eta igogailua. Erreforma behar du. Prezio berria: 54.000.000 pezeta.

**Zarautz.** SALBIDE. 3 logela, 2 bainugela, terraza, trastelekua eta garaje itxia. Oso egoera onean. 75.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Itxasmendi. 3 logela eta 2 bainugela. Erreforma behar du. 41.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 · 20800 Zarautz · Tel.: 943-01 07 00 · Mug.: 665-71 85 96



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

→ **Laburrak****GPS arreta bulegoa irekiko dute gaur, 19:00etan**

**AMASA-VILLABONA** ▶ Herritarrei atez-ateko sistemari buruzko informazioa eman eta zalantzak eta kezak argitzeko asmoz, GPS arreta bulegoa irekiko du gaur Amasa-Villabonako Udalak. Kale Nagusiko 29. zenbakian kokatuta egongo da. Inaugurazio ekitaldia, 19:00etan izango da.

**Eresargi abesbatzaren kontzertua, igandean**

**AMASA-VILLABONA** ▶ Eresargi abesbatzak Aste Santuko ohiko kontzertua eskainiko du datorren igandean, hilaren 24an. Hitzordua, eguerdiko 12:15ean izango da herriko elizan. Nahiz eta obra guztiak sakroak izan, estilo aldaketa ezberdinak dituzten obrak eskainiko dituzte, pianoan Ana Iparraguireren laguntza dutela.

**Billabonatarren presentzia joko garbiko finaletan**

**AMASA-VILLABONA** ▶ Beharza-na pilotalekuak, Gipuzkoako joko garbiko ezker-paretako finalak hartuko ditu bihar 18:30etik aurrera. Senior mailan, Villabonako bi ordezkari izango dira finalen: Alejo eta Sanchez. Zubietako bikotearen aurka arituko dira. Gazte mailan, beriz, bi bikoteak zubietarrak izango dira. Bien bitartean, Oñatin, 16:00etan, Gipuzkoako eskolarteko eskuz binakako finalak jokatuko dira, eta infantil mailan, Behar Zana pilota elkarteko Etxeberria eta Kristoffer-ek jokatuko dute.

**Igandean, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen saioa**

**ASTEASU** ▶ Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Sentitu*, *Pentsatu*, *Ekin!* izeneko ikuskizuna eskainiko dute igandean kiroldegian, 17:00etatik aurrera. Sarrerak salgai daude Asteasuko udaletxean, eta Kattin eta Amasa-Villabonako Basajaun liburudendetan, sei euroren truke.

**Jai batzordearen bilera, astelehen arratsaldean**

**IRURA** ▶ Datorren astelehenean, martxoaren 25ean, Irurako jai batzordea bilduko da. Bilera, 19:00etan izango da udaletxeko batzar aretoan, eta hainbat puntu jorratuko dituzte bertan. Alde batetik, korrikaren balantzia egingo dute. Ondoren, apirileko Kirol astea eta Maiatza kulturalari buruz arituko dira hizketan.

**Irudia** ◊ **Tolosa****ZABALETA, LAUGARREN SPAINSKILLS-EN**

EuskoSkills, Lanbide Heziketako Euskal Herriko Txapelketak, hainbat lanbidetako ikaslerik onak hautatu zituen pasa den urteko udaberrian. Jon Zabaleta leitzarra izan zen horietako bat. Bada, estatu mailako txapelketarako sailkatu zen

Tolosaldea Goimailako Lanbide Heziketa Institutuko ikaslea, eta Madrilgo IFEMA erakustazokan izan zen hozte-sistemen espezialitatean gainontzeko ikasleekin lehian. Zabaletak laugarren postuan amaitu zuen. HITZA

**IV. Braderie azoka egingo dute larunbatean Tolosa&Co elkarteko 74 dendend eskutik**

Neguko denboraldian saldu ezin izan dituzten produktuak, merkeago erosteko aukera izango da egun osoan zehar



Pasa den urtean, jende andana bildu zen Braderie Azokan. IÑIGO TERRADILLOS

**Mikel Iraola** Tolosa

Tolosa&Co merkatarien elkarteak antolatuta, Braderie azoka izango da bihar egun osoan zehar. Laugarren urtez, 10:00etatik 20:00ak bitarte, neguko denboraldian saldu ezin izan dituzten produktuak, prezio merkeagoan salgai jarriko dituzte elkarteko 74 saltokiek.

Orotarik produktuak eskuratu ahal izango dira: liburuak, jostailuak, argazkigintzako produktuak, etxeko tresnak, arropa, apaingarriak, azpiko-arropa... Elkarteko parte diren tabernek ere, kafe edo pintxo bat eskainiko dute euro baten truke, azokan zerbait erosten dutenentzat.

Alde zaharreko, zein zentroko dendek, beren saltokien kanpoaldean jarriko dituzte euren produktuak. Kanpoaldeko dendek beriz, San Frantzisko ibiltokian jarriko den karpa batean jarriko dituzte. Zerkausian, gainera, umeentzako puzgarriak jarriko dituzte, 16:00etatik 20:00etara.

Berrikuntza gisa, zozketa bat antolatuta dute gerturatzen direnentzat. Tiket bat emango zaio erosle bakoitzari, eta kutxa bate-

an utzi beharko du. 16:00etan egingo den zozketan, 100 irabazlek, 10 euroko txeke bana jasoko dute azokan gastatzeko.



Beñat Urretabizkaia. HITZA

**Urretabizkaia ikaztegiatarra, garaile Zizurko Lau t'erdiko Txapelketan**

Intxurreko Gorostidik eta Alonsok hirugarren mailako txapelketako finala jokatuko dute gaur Eibarren

**M. Iraola**

Pasa den larunbatean Zizurren jokatutako lau t'erdiko txapelketa irabazi zuen Beñat Urretabizkaia pilotari ikaztegiatarra.

Ezkurdia nafarraren aurka jokatuta zuen Urretabizkaia. Partida gogorra izan zen, izan ere, 12 eta 8 galtzen joan zen. Ikaztegiatarra, ordea, ez zuen etsi. Tanta lortu, pilota aldatu, eta dinamika guztiz aldatu zen. Zuzenean, 18ra iritsi zen, eta aurkaria 12 puntutan utzi zuen. 18 eta 12ko emaitzarekin amaitu zuen finala.

Datorren asteazkenean, beriz, hilaren 27an, Goñi Memorialeko Lau t'erdiko finala jokatuko du Zumarragan.

**Intxurreko pilotariak, finalera**  
Intxurre pilotari elkarteko hirugarren mailako pilotariak, finala jokatuko dute gaur Eibarren. Egoitz Gorostidi abaltzisketarrak eta Asier Alonso ikaztegiatarra osatutako bikotea, Arrasateko Arabaolaza-Arregi bikotearen aurka arituko da.







Miguel Mari Elozegi Luze, Oskar Estanga eta Jon Martin, aurkezpenaren. HITZA

## ‘Bat-batean’ bertso saio musikatuan ariko da ‘Luze’

Oskar Estangaren emanaldi berrian hartuko du parte; gaur izango dute emanaldia, Gallartan

**Erredakzioa** Leitza

Musika eta bat-bateko bertsoa uzartu ditu Oskar Estanga bertsolari eta musikariak *Bat-batean* izenarekin egingo duen ikuskizunean. Kantatzeko koplak doinuak hartu ditu, bai Euskal Herrikoak eta bai munduko hainbat kulturatakoak ere. Ikuskizun berri honetan parte hartuko duten bertsolarien artean dago Migel Mari Elozegi *Luze* leitzarra.

Leitzarrarekin batera, Aimar Karrika, Jon Martin eta Etxahun Lekue bertsolariak ere ariko dira. Musika alde aurretik aukeratu eta egon arren, gitarra zuzenean joko du Oskar Estangak eta bertsoak, momentukoak izango dira. Besteak beste, samba, tangoa, sona eta reggaea egingo dituzte, baita *Guantanamera* eta Kiko Venenok konposaturiko *Volando voy* abestia ere, besteen artean. Horrela, inprobisazio saioa eta musika saioa izango da, aldi berean, emanaldia.

Estreinaldia Goizuetako plazan egin zuten Estangak eta Migel Mari Elozegi ‘Luze’-k, eta harri ona izan zuen. Hurrengo saioa gaur izango da, Gallartako Argia jatetxean.

## → Laburrak

### San Pedro jaiak antolatzeke bilera, gaur

**LEABURU-TXARAMA** | Leaburuko San Pedro jaiak antolatzeke festa batzordea osatzeko helburuz lehen bilera egingo dute gaur. Gazte gelan izango da, 20:00etan hasita, eta udalak herritar guztiak animatu ditu parte hartzera.

### Ikurrinak eskuragarri jarri dituzte herritar ororentzat

**IBARRA** | Ibarroko Udalak martxoaren 20an herritarrei etxez etxe ikurrinak banatzeko asmoa zuen, baina adierazi duenez, «arazo teknikoak» tarteko, eguna atzeratu dute. Hala ere, azaldu dutenaren arabera, herritarren batek ikurrinaren bat nahi izanez gero, eskuragarri izango ditu udaletxean edota kultur etxean. Halaber, herritarrek animatu dituzte beraien balkoietan ikurrinak jartzera.

### Zerbitzu publikoen murrizketen aurka

**LEITZA** | Leitzako Murrizketen Aurkako Herri Taldea Zerbitzu Publikoen defentsan bihar Iruñean egingo den manifestazioan izango da, Nafarroako zerbitzuetako atal ezberdinekin batera. Oinarrizko zerbitzu publikoak beharrezkoak direla aldarrikatuko dute. Iruñera, autoz elkarrekin joateko deia egin dute, eta han Leitzako pankartarekin joateko. Oialden, 16:30ean egin dute hitzordua.

## Etxauriko Harrian lehiatuko da etzi, Josetxo Urrutia leitzarra

Ostolaza, Bertiz, Iruretagoiena eta Irigoienekin ariko da; 136,5 kiloko harri traketsa erabaliko dute

**I. Terradillos** Leitza

X. Etxauriko Harriaren Jasoaldia Alberto Lakostaren oroimenezkoa izango da datorren igandean, hilaren 24an, Etxaurin (Nafarroa Garaia), 12:30ean hasita. Bost harri-jasotzaile ariko dira bertan lehia, eta horietako bat leitzarra, Josetxo Urrutia. Gainerakoak Joseba Ostolaza zestoarra, Joxe Ramon Iruretagoiena *Izeta II.a* aiarra, Aimar Irigoien erretil-darra, eta Unai Bertiz sunbillarra izango dira.

Bost kirolariek heldulekurik gabeko 136,5 kiloko harri traketsa erabiliko dute 5 minutuko txanda bakarrean. Harri horrekin orain arteko marka handiena Joseba Ostolazak du, hamahiru jasoaldiarekin. 40 urtez harri horrekin jasoaldiak egiteko ohitura galdu egin zen, 2000. urtean elkarte batek atzera txapelketa antolatu dute txapelketa arte. Urte horretan jokatu zen txapelketa lehen aldiz harri horrekin, eta 2006. urtean bigarrena. Harrezkero urtero antolatu dute txapelketa.

Bestalde, larunbatean Joseba Ostolazak 190 kiloko Xiete harriarekin marka ahalegina egingo du, Aizarnazabalgo pilotalekuan, 18:30ean. Bada, Josetxo Urrutia leitzarrek irakustaldia egingo du bertan. Ingudearekin ariko da lanean.



2005ean marka jarri zuen Urrutiak, 5 minututan 6 aldiz jasoz. HITZA



harpidedun izateak badu saria saridunak

### 1 Ostatu Hernialde Jatetxea

Bi laguntzako bina bazkari edo afari

Xanti Urizar Murua  
(Tolosa)

Hernialde  
Eskara egiteko, 2 hlabete: Tel: 943 65 24 96



### 2 Euskal Herriko Plaza

Sorta bat

Felix Irazustabarrena  
Arzuaga (Alegia)

Saridunek etxean jasoko dute sorta

euskalherriko  
**PLAZA**

www.euskalherriko plaza.com

### 3 Eureka zientzia museoa

Bi laguntzako bina sarrera

Karmele Altuna Jauregi (Amezketan)  
Agustin Agote Garmendia (Tolosa)

Saridunek bina sarrera izango dituzte leihatilan



**eureka!**  
zientzia  
museoa

Mileletegi pasealekua, 43-45  
Tel: 943 01 24 78  
www.eurekamuseoa.es

harpidedun  
**TXOKO hitza**

# Atez atekoari buruzko Villabonako hitzaldia bertan behera utzi du PSCk

EH Bilduk salatu du PSE-EEk presionatu egin duela PSC; «beldur dio eztabaida aske bat izateari» adierazi dute

**Iñigo Terradillos** Villabona

PSC alderdiko Hector Gonzalez Kataluniako hondakin kudeaketari buruzko hitzaldia aurreikusia zegoen biharko Villabonan, baina bertan behera geratu da. Antza, PSEren presioen ondorioz PSCk Hector Gonzalez Tiana herriko zinegotziari ukatu egin diolai Villabonara, bai eta Gipuzkoan hitzaldia eman behar zuen beste herrietara joateko baime-na.

Hitzaldien antolatzaileek adierazi dute PSE-EEk eskatu duela hitzaldiak bertan behera uzteko. Hector Gonzalezek esan du «erabat lotsatuta» dagoela gertatutakoarekin. Atez atekoarekin horrelako giroa sortzea «ulertezina» dela esan du. Bere herrian atez atekoarekin lortutako emaitzeekin «harro» dagoelako munduko edozein lekutan aurkeztu eta defendatzeko prest dagoela azaldu du, eta herritarrei barkamenak eskatu dizkie, eta hitzaldiak emateko gogoz gelditu dela erantsi du.

Dena den, ez du baieztatu hitzaldiak bertan behera uztearen atzean PSEren eskakizun bat dagoenik. Alkateak esan diola momentuz hobe izango dela hitzaldiak ematera ez joatea adierazi du Gonzalezek. «Nik ez dakit nondik datorren erabakia; azkeneko katebegia naiz». Egun pare bat itxarroteko ere eskatu du, zer gertatzen ari den argitzeko.

**«PSE-EEk presionatu ditu»**

EH Bildu koalizioak salatu du PSE-EEk utziarazi dituela Gipuz-



Villabonan hondakin bilketaz herritarrekin eginiko bilera bat. HITZA

koan Kataluniako hondakin kudeaketaz egitekoak ziren hitzaldiak bertan behera: «PSE-EEk beldur dio eztabaida aske eta zentzudun bat izateari eta horregatik presionatu ditu PSCko kideak». «PSOEK beste lekuetan onartzen duena ez du Gipuzkoan onartzen», nabarmendu du EH Bilduk. Katalunian ez ezik, Mallorcan, Madrilen eta Galizian atez ateko bilketaren alde egiten dute sozialistek, koalizioaren hitzetan.

Gipuzkoan, aldiz, PSE-EEk «interes ekonomiko eta alderdikoak» lehenesten dituela salatu du EH Bilduk: «Gaia erabat politizatu nahi du, eta demokraziaren oinarri den informazioa libreki eskuratzeko eskubideari traba egiten dio». Hiri hondakinaren tratamenduari buruzko eztabaida sosegatzeko eskatu du koalizioak, eta gainerako alderdi politikoei arduraz jokatzeko eskatu die, «birziklapenaren gizartea» eraikitzeke egitasmoekin bat eginez. Koalizioak gehitu duenez, «are harrigarriagoa» egiten zaio jarrera hori, Tolosan hondakin mahaia utzi ostean PSE-EEk egindako adierazpenak aintzat

harturik. «Eztabaida eta birziklatzeari ez diogu muzin egingo, ez eta herritarrak informatzeari ere».

Bestalde, Tolosaldeko Mankomunitatek adierazi dutenez, *Hondakin kudeaketa Katalunian* hitzaldia antolatzearen arrazoia, «ezagutza lortzea» izan da, «beste toki askotan aurrera eramanda proiektuetatik elikatzea». Kataluniako eredu «bereziki interesgarria» dela diote mankomunitatek, «urte askotako esperientzia baitute bilketa eredu berritzaileagoekin». Biharko Villabonako hitzaldian Hector Gonzalez Kataluniako Tiana herriko Ingurumen zinegotziak euren bilketa eredu azaldu behar zuten. Tiana izan zen Katalunian atez ateko sistema ezarri zuen lehen herria, duela 13 urte.

Hitzaldi horrekin «esperientzia desberdinak ezagutzea, eskualdeko udalek eta herritarrek informazioa jaso eta ematea, eta gure herritarako gehien birziklatzen duen eta eraginkorrena den eredu garatzea» nahi zuten Tolosaldeko Mankomunitateak. Horregatik, dio, ez duela ulertzen «zergatik jarri zaion oztopoa».



IT.

**Iñigo Yurrita** • Uzturpe ikastolako sukaldaria

## «Denak animatzen ditut birziklatu eta konposta egitera»

**I. Terradillos** Ibarra

Ibarrako Udalak auzo konposta egiteko bi gune jartzeko asmoa du, eta herritarrak animatu nahi ditu hondakin organiko bertan botatzera. Ekimen honetan parte hartu nahi duten herritarrek martxoaren 27ra arte izango dute udaletxean izena emateko aukera. Herritar askok konposta egiten dute egun, eta horietako bat da Iñigo Yurrita, Uzturpe ikastolako sukaldaria. «Erraza» dela, «ez duela aldatetarik eragiten» eta jende guztia animatzen du birziklatu eta konposta egitera.

**Nolakoa da konposta egiteko prozesua?**

Egunero sukaldean pilatzen den hondakin organiko, hala nola, berdura azalak, arrautz oskolak, edota soberan geratzen den janari apurra jaso eta astean behin edo bitan konpostagailuetan botatzen dugu. Botatzean nahastu egiten dugu aurretik botata zegoenarekin, oxigenatzeko edo, eta behin beteta dagoenean, hostoekin eta txirbilekin tapatzen dugu. Noizean behin zulo batzuk egiten dizkiogu aire pixka bat hartzeko, eta horrela konposta egin arte.

Konposta egiten denean atera eta plastiko azpian gordetzen dugu, eta behar denean baratarako erabiltzen dugu.

**Ze kopurutan birziklatzen duzue sukaldean?**

Sukaldean organikoarentzat ontzia dugu, plastikoarena, paparena eta errefusarena. Beste hirurak ondo erabilia oso zabor gutxi sortzen da, eta astean behin edo bitan ateratzen dugu. Badira gauzak ezin direnak birziklatu, baina bestela, ia dena birziklatzen da.

**Erraza egiten al zaizu birziklatzea eta konposta egitea?**

Bai. Oso erraza da. Dena eskura izanik, ondo antolatu eta ohitura hartzea besterik ez da.

**Ingurumenaren onerako dela jakinik errazago egingo da, ezta?**

Bai, noski. Gainera, hau guztia ikastolaren Agenda 21 programak kudeatzen eta laguntzen du.

**Etxean edonork egiteko modukoa da, beraz.**

Bai. Etxean, zaborra leku batean bota ordez gehiagotan botatzea besterik ez da. Ez du inongo aldatetarik eragiten, ontzi bat edo bi gehiago gehitzea besterik ez. Jende guztia animatzen dut birziklatzera eta konposta egitera.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



20°  
10°

GOIZA  
ARRATSALDEA  
BEROENA  
HOTZENA

OSTARTEAK  
LAINOTUTA  
19°  
9°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarra@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



**Galtzaundi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduña, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Urte askoan!

**Yuli Etxarri (Leitza).** Biharko partez Zorionak, eta ondo pasa eguna ikaztegietakako familiaren partetik.

AGURRAK  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info

agurrak

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunkoia: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28. Gauekoa: Etxebeste, J.M. Gernikako arbolaren lorategiak, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.  
■ **Lekunberri.** Mendi, M.I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.  
■ **Lekunberri.** Mendi, M.I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

ETZI

■ **Ibarra.** Egunkoia eta gauekoa: Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.  
■ **Lekunberri.** Mendi, M.I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

■ **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Morant, R. Zabalzarrea lorategiak, 1. Telefonoa: 943 67 38 49.  
■ **Leitza.** Campos M.Z. Elbarren, 52. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Amasa-Villabona.** GPS arreta bulegoa inauguratuko dute, gaur, 19:00etan. Bulego honen helburua atez-ateko sistemaren inguruko informazioa herritarrei ematea da. Zalantzak eta kezkak argituko dira bulego horretan, eta inaugurazio ekitaldira herritarrei bertaratzeko gonbita egiten die, udalak.

■ **Belauntza.** Bertso afaria egingo dute, gaur, Bentan. 20:30ean izango da, eta izena eman nahi duenak 943 67 28 28 telefonora deituz eman daiteke.

■ **Berastegi.** Herri batzarra egingo dute udaletxeko pleno aretoan, 21:00etan. Ondorengo gaiki jorratuko dituzte: udaletxe berriua, etxebizitza tasatuek, hondakinen kudeaketa eta langileen kontratazioa. Herritar guztiei dei egiten zaie.

■ **Bidegoian.** Azken ostiraleko elkarretaratzea astebez ezarritako egingo dute, gaur, hilak 22, Bidaniako frontoia arearreko plazan, 19:00etan.

■ **Tolosa.** Igandean Baionan bukatuko da 18. Korrika. Bertan egingo den azken jaira joateko autobusa antolatuko dute Tolosan. Txartelak salgai daude

Raku eta Ikatza tabernetan, 10 euroan. Autobusa Santa Klaratik aterako da 09:30ean.

MUSIKA

■ **Tolosa.** Las Culebras, Safety Pins eta Las Primitivas taldeak ariko dira zuzenean, Bonberneako oholta gainean, 22:30etik aurrera.

DANTZA

■ **Tolosa.** 'Arte-an' dantza emaldia izango da, Dantzaz konpainiaren eskutik, 20:30ean, Leidor aretoan.

MARTXOAK 23, BIHAR

DEIALDIAK

■ **Anoeta.** Atez ateko hondakin bilketaren gizarteratze prozesua dela eta, bihera izango dira, Anoetan. Lehena, gaztelaraz izango da 09:30ean hasita, eta 12:00etan, hasiko da euskarazkoa. Errotalde, Idiakaitz, Sakabanatua, Agoin eta Apeadero aldeko bizilagunei zuzendua izango da.

■ **Zizurkil.** II. Gazte Eguna ospatuko dute, hilaren 23an, Zizurkil. Txepetxa Gazte Asanbladak antolatuko du, eta herri kirolekin hasiko dute eguna, 11:30ean. Ondoren, txerrikume erakustal-

dia eta triki poteoa izango da herriko tabernetatik. Bazkariaren aurretik, 13:00etan, Txepetxari ongi etorria emango diote plazan. 14:00etan egingo dute bazkaria. Arratsaldean, berriz, gazte jolasak eta txerri harrapaztea egingo dituzte, Larriango zelaian. 20:00ak aldera, triki-bertso poteoa egingo dute. 23:00etan, Aierrik taldea izango da.

■ **Bedaio.** Emakumeek afaria egingo dute, hilak 23, Abaetxe jatetxean. Musika eta dantza izango dituzte lagun.

■ **Tolosa.** Dantzari Txiki eta Erromeria eguna izango da, Udaberri dantza taldeak antolatuta.

■ **Tolosa.** Txotxongilo taldea erakusketaren inaugurazioa izango da, Topic zentroan, 19:00etan.

MUSIKA

■ **Tolosa.** Tolosako Musika Bandaren Pazko kontzertua izango da, 19:00etan, Berdura plazan.

ZINEMA

■ **Amasa-Villabona.** Gurea zinemaren No filma ikusteko aukera izango da, 22:00etan. Sarrekin bost euro ordaindu beharko da.

■ **Tolosa.** 19:30ean *Mamá* filma ikusteko aukera izango da, eta 22:30ean, *Mamá* eta *The last breath* eskainiko dira, Leidor zinemaren.

MARTXOAK 24, ETZI

DEIALDIAK

■ **Lizartza.** Elkartasun bazkaria egingo dute, hilaren 24an, Lizartzako frontoian. Antolatzaileek 12:00etarako gerturatzeko deia egin dute.

■ **Amasa-Villabona.** Eresargi abesbatzaren kontzertua izango da. Jaietako ohiko kontzertua eskainiko du 12:15ean elizan. Kontzertuan era askotariko obrak jorratuko dituzte, Ana Iparragirreker pianoan lagunduta.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Leidor zinemaren, 17:00etan *Piratas* haur zinea izango da. 19:30ean, berriz, El vuelo filma, eta 22:00etan, *Mamá* eta *The last breath* ikusteko aukera izango da.

■ **Amasa-Villabona.** Gurea zinemaren, 17:00etan, haurrentzako *El origen de los guardianes* filma izango da, 3,50 euroren truke. Ondoren, 19:30ean, *No* filma eskainiko dute.

**zozketa**

**saridunak bi sarrera pare**

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek eskeiniko duten emankizunerako Izaskun Garmendia Anfurrutia (Tolosa) Maria Jesus Murua Artola (Alegia)

\*Saridunek, sarrera pare bana izango dute lehiatilan

Martxoak 24 - Igandea 17:00 Asteasuko kiroldegia

**GOURMET ASTEBURU BAT Cadosa hotelean**

68€

www.mauka.eu

**Mauka berria**

Izena eman orain Maukan, eta irabazi bi pertsonarentzako egonaldia Urdaibai Biosfera Erreserbatuan, Aristieta baserrian!

www.mauka.eu

ARISTIETA BASERRIA

Eman izena apirilaren 7a baino lehen